



Arratsaldean zehar, aske geratu dira Intxaurren Guardia Zibilak atxilotu dituen 4 euskal herritarrek. EFE agentziak adierazi duenaren arabera; atxiloketak ez daude prozesu judizial baten barruan, Guardia Zibilak ireki dituen diligentsia baten ondorioak direla baizik. Diligentsia hauek audientzia nazionalera bidaliko dituzte. Atxiloketa salatzeko arratsaldean zehar, mobilizazio ezberdinak egon dira Euskal Herriko txoko ezberdinetan, horietako bat Santurtzi izan da, atxilotutakoetako bat Oihane Garmendia santurtziarra izan baita.